


Gipuzkoa

Pasaia

Pasai San Pedro

---

### SENEKOZULOKO ITSASARGIA FARO DE SENOKOZULUA



Joaquín Arguedas bide-ingeniariak etxebizitza, dorrea eta itsasargirako bidea eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen 1906an; helburua Pasaiaiko portuko gaueko zirkulazioa hobetzea zen, Platako itsasargiak bakarrik ezin baitzuen lortu. Hiru urte geroago inauguratu zuten, portuan sartzeko abordatze-puntua seinalatzeko, mendebaldeko bantxa eta bi arandoak gaindituz. Eraikinak oinplano angeluzuzena, solairu bakarra eta okre koloreko harria dauzka. Dorreak prisma forma du, eta itsasora ematen duen fatxadari itsatsita dago. Etxebizitza bakarra eta makina-gela baino ez dauzka. Gainera, bi metroko diametrodun linterna zilindriko bat dauka, baita burdinurtuzko dorre bat ere. Estilo klasikoko eraikina da, Frantziako kostaldeko itsasargien antzekoa; soiltasuna eta funtzionaltasuna ditu nagusi. Baoak modu erregularrean daude antolatuta, eta ateburuetan zein erlaitzetan apenas dagoen apaingarririk; horrek kontraste egiten du barrualdean dagoen burdinurtuzko eskaileraren apaindurekin. Monumentu izendatu dute 2012an.

En 1906 Joaquín Arguedas, ingeniero de caminos, presentó el proyecto de construcción de la casa-vivienda, torre y camino de acceso a un nuevo faro que mejoraría el tránsito nocturno al puerto de Pasaia; algo que el faro de La Plata no conseguía por sí solo. Fue inaugurado tres años más tarde para que señalara el rumbo de abordeaje de entrada al puerto, salvando la Banca del Oeste y los Arandos. El edificio es de sección rectangular, de planta única, y piedra de color ocre, con la torre prismática adosada a la fachada que da al mar. Albergaba una única vivienda y la sala de máquinas. Contaba además, con una linterna cilíndrica de dos metros de diámetro y un torreón de fundición. Es un edificio de corte clásico, en la línea de las construcciones de los faros de la costa francesa, que mantiene la sobriedad y funcionalidad. La regularidad de la disposición de los vanos, así como la limitada ornamentación en dinteles y cornisa, contrasta con la profusión decorativa de la escalera de fundición del interior. Ha sido declarado monumento en 2012.